

## Eiteak

TXILLARDEGI



**LEHENGOAN** Bilboko egunkari batetik deitu ninduten. Oso oso laburki hau jakin nahi zuten: ia Eireko azkeneko gertakariak ondorioz izango duten hemengo eboluzioan.

Erantzuna segituan eman nien. Nazio-arazoket bi soluzio dituzte. Bata indarbidetzko asimilazio inperialista da, bortizkeria armatua, genozidioa, lege-itxurako etnozidioa, inmigrazio erraldoia. Arazaoren jatorrian zegoen nazioa, ezabatu egiten da mapatik. Ez baita oso 'demokratikoa'.

Beste, berriz, zapalduita dagoen nazioari Auto-Determinazio eskubidea aintzakotzat ematea da; eta beraz bideratzeko lehenengo urratsak egitea, akordio-bidez eta elkarriketzez.

Eiren, hemen bezala, eta beste anitz lekutan bezala, lehenengo bidea hautatu zuten haserari; eta horretan irau du hiru mendetan barenna, su-ta-gar eiretarrak nazioagabetuz, zapalduz, lapurtuz, sarraskituz, eta britaindar-tuz. Baina eiretarrak hizkuntza-gabeturik, jendegabaturik eta zafaturik ere, eutsi egin diote: ez dute britaindarrek izan nahi, eiretarrak baizik.

Azkeneko asteeko albistek gauza bat erakusten dute: britaindarrek etsi egin dutela, eta 'maletak' egiten hasi direla. Aspaldiko partez! — Uste duzu zuek —galdezen zidaten— Euskal Herrian ondorioz izango duenik?

— Nor ez? erantzun nahi nion. Madriko gobernuak inork baino gutxiago. Horregatik agertzen da urduri: «el problema vasco no tiene nada que ver con el irlandés»...

Baina hemen ere, prozesua freinatzen eta desbideratzen duten sasi-abertzaleen farsa erorita berehala, Eireko eboluzio berbera ikusiko dugu. Ez dago duda izpirik.

Abertzaleok badakigu, eta etsaiek ere bai, Nor ez? Aberrigintza eta makina txanpon-jaleak oraindik berezten ez dituztenek. Baina hauen amaiera heldu da.

## Paisleyarrak

XABIER OLEAGA



**GARAI** txarrak izan dira egunok euskal gatazka deitzen zaion honetako estatuen kezken artean lehentasuna aspaldi galdu zuela atzo arte zioten horientzat. Inkestean arabera herritarrei, bertokoei eta kanpokoei, hurbilago jotzen dieten arazoket inportatu omen zaizkie bakarrik. Baina hortxe dago kokxa. Estatuaren lehentasunak eta herritarrenak ez du zertan batera joan. Gehiago oraindik, gehienetan ez dira bat joaten.

Nondik atera zaio krisiaren mamua PSOE-ren gobernu dardartari behin plangintza ekonomikoa bideratuta zegoenean? Kezkagai polibaletea den euskal gatazkatik. Beste polemika gaiek hasi eta amaierako eguna izaten dute. Euskal gaia betikoa da.

Londresi Ipar Irlandan gertatzen zaion bezala, Madrilgo Gobernuak behin eta berriro pasatzen ditu krisialdiak, estatuak krisialdi latzak igarotzen ditu, euskal gatazka dela eta. Hori horrela izango da Madrilko Londresek bezalako jarrera ausartarik hartzen ez duen bitartean, askotan esan ohi den bezala. Hangoaren eta hemengoaren artean, hala ere, diferentzia nabarmena dago oraingoz behintzat. Alegia, han ez du Paisleyk agintzen jada estatu britainiarren interesetan. Madrilen, ordez bertako paisleyarrak dira nagusi.

Hori horrela izanik, portzierto, kontuz, Gobernuak krisi gorrogean dago, estatuaren eskabiltateak kolokan dago, beraz, eta desorekaren arazoia euskal gatazka da. Gutxi balitz, hauteskunde bezperan sartu gara. Halakoetan paisleyarrek hemen norik agintzen duen argi utzeko tentazioa izaten dute. Azkenaldian, beste helbururen batekin, Artxandian eta Muskizen aritu ziren.

## LA VANGUARDIA

### Guru goren

François Mitterrandi askotan bere gaztaro nahasiagatik eraso egin diote, orduan eskuindarizat eta are frantziarrek Hitlerrekin izandako kolaborazioa itxuratu zuen Petain mariskalaren aldekotzat ere joz. Baina Mitterrandek lortu zuen kamuflatzea baietzapen horiei itzuriz, erdeinuz hainbat gauza esanez, honako hau esaterako: 'Ezetz esatea nire burua behitzez litzateke. Eta, gainera, zergatik erantzun? Nire gaztaroan eskuin muturrekoa izan nintzela egia balitz, oheragarriagotzat joko nuke egun nagoen lekuan egotea alderantzizko bidea egitea baino.

Hala ere, gaur agertu da liburu mardul bat, 'Frantziar gaztaro bat, Mitterrand 1934-1947'. Pierre Péan ikerketa-kazetariarena, eta horretan Frantziako Errepublikako lehendakaria kasik hamauru urte amaitezinetan nazionalista bezain faxista izan zen Suzuko Gurutzea eskuin muturreko mugimenduko kide izan zela eta Petain mariskalak berak bere erregimeneko kondekorazio goren, Francisca zeritzona, bere papartearen jarri ziola argi frogatuta utzeaz gain, nabarmen gelditzen da Mitterrand lehendakariak berak laguntza eman diola Péani honet zituena datuak egiaztatuz, beste batzuk zehaztuz, hala nola

## HEMEROTEKA



TULINO / DEIA

erregimen petainistako poliziburu eta, erresistenteen eta juduen hartapazaitze izandakoarekiko 1986an hil zen arte izandako mit-respen eta adiskidetasuna... Harridura handia da, baina gutxiago agerian gelditu denagatik Mitterranden jarregatik baino.

BALTASAR PORCEL

## Diario 16

### Swift Kairon

Politikariak gauza guztietan gainontzeko biztanleak baino gehiago dira, beste gizakiak bezalakoak diren puntu batean izan ezik. Eta gehiago dira beren bizitzetako onena guztien ongiaren alde nahutzen dutelako, hain zuzen ere gainontzeko herritarrei gutxi samar axolatzen gaituen horren alde. Baina badago plane-

tako gizaki guztiok bat gatozenerako puntu bat. Eta hori da guztiok, politikari eta herritar aruntok, klasiko bateko pare bat lerro irakurtzea baino lehenago utziko geniokeela Hitlerri berari besoa anputa diezagun. Duela ehun urte Mark Twainek esana zuen: «Klasiko bat mundu guztiari irakurtzea gustatuko zitzaiokeen eta inork irakurri nahi ez duen zerbit da». Eta gogoan izan Twainek, desinteres sozial horregatik, klasikoak maltzurki gauza bihurtzen duela, norbait gabe zerbit kalifikazio ematen baitio.

182 ordezkaritazatoko ia hamar mila lagun garunak urtzen ari dira Kairon egiten ari den Biztanleria eta Garapenari Buruzko Konferentzian eta asmorik onenarekin —Vatikanoa laguntza handia ematen ari da— testu bat erredaktatzen ahalegintzen ari dira baina, klasikoei dieten alergiaz

genetikoarengatik, ez dute konturatu nahi jada duela 265 urte erredaktatu zela. Izan ere, 1729. urtean Jonathan Swiftek, 'Gulliverren Bidaiek' liburuaren egileak, inoiz erredaktatu den proposamen malthusiar erradikalena idatzi zuen. Eta hain izenburu erabateko honekin: «Proiektu apala Irlandako txiroen seme-alabak beren gurasoentzat edo herriarentzat karga bat izan daitezen eragozteko, eta onura publiko bihurtzeko». Ekonomikoki burutsu baten tonua imitatuz, Swifték zentuz proposatzen du urtebeteko hartuzko txiroak, ekonomiarren ikuspegitik hiri baita adin errentagarriena, aberatsak elikatzeko erabilteza. Eta Dublinen toki egokietan haur hilegiak instalatzeko eskatzen du, gero harakin falta izan daitekeen batera beldurrik gabe gainera.

RAMON IRIGOIEN

## ZUZENDARIARI

### Euskarari funtzio guztiak bai

Gauza batzuk komentatu nahi nizkioke Pedro Miguel Etxenikeri, 'Ez dago larrosarik' programan esandakoak.

Konforme Euskal Herrian Euskaraz egin behar delakoarekin, baina Unibertsitateko departamentu ezberdinetatik ateratuko konklusio zientifikoak ere euskaraz argitaratu ematen ahal dira, funtzio hori ez bait du euskarak zertan galdu behar garaian garaiko, oraingoan inglesa ei da, mintzairaren mesedetan. Erabat ados lingua franca baten beharrea gaudela, baina inposatutako etsaitasuna sortzen du, eta hori demokratikoki behar da erabaki nazioartean, eta diot nazioartean eta ez estatuar-tan. Lingua franca badaude hortik landa,

hala nola espainiera, arabiera edo txinera, inportanteak. Eta izaiten ahal dira zientifiko bihurtu eta makurrak. Jack Nicholson horren itxurakoak, arabe ipintzen ahal dituztenak euren aberiguzioak gero Libian argitaratzeko. Baina behar da unean uneko liderrak admiratutak izan ditzeten, inglesdunak gaur egun, handik ikasi eta aurreratzeko, izanik Goethek zioena egokiena: «Aplikatu naiz, denetik zurgatzen dut eta hazten naiz barrutik kanpora».

Gainera, kontuan hartuz hizkuntza guztiak deskriptio logikoetarako sistema kodifikatuak direna, oinarri oinarritik, sistema binario batean ardatzatu (bai ala ez), hortik pentsa ahal da tradukzioetarako ez dagoela arazo teorikori, nahiz eta gaur egun praktikan ezin bada ere oraindik (diot komputadoreetan).


Oraindik gehiago, kontuan izanik diferen-

tzia (ez hasten baina helmugan, zuk zioen bezala) badaudena, hala ere oso antzerakoak gara, eta tonotasuna sarri izaera baino egoera izaten da, eta iherakiak egotera bere lagunak jasotzen dituen banan banan batzabai hobe da indibiduo argiena baino, orduan erraiten ahal da euskaraz balitekeela puntako produktorek ageri, elitekoak, edo ikerbide egokiak seinaltatzen dituelako (Goethek zioen genioak, ikerbide emankorrak jorratu baino seinaltatu egiten zituelak) edo zuzenean urratu egiten dituelako.

Ostean oso interesaturik jarraitu nuen zuri egindako programa, eta espero dut nik ere Euskal unibertsitate horretan haren kanafkianoak baino ondo hartua denarenak edukitzea inoiz. Aldea bai dago, bistan dena.

ROMAN GARMENDIA


## GAIA JARRITA



### Kontxako estropada

San Pedrok izan arren abantail pixarra, gogor dabilen arren Meira galiziarra, txanpa onean joaz palada azkarra, Lujanbik emanda Fontani bizkarra, txapelidun izango da Kontxan La Navarra

KARLOS AIZPURUA



Batzord. Puzkidea, 72564/E/Lege Gordailuz SS 800/90



OJD IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordexkaria: ISAKI URIA

Gerentea: FERMÍN LAZKANO

Zuzendaria: MARTELLO OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN EMEZAHARRETA

Publizitatekoa: MARI JOSÉ SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerrak: ANTZA S.A. Indurrialdea 01.02. Pablosk 20160 Lasarte-Oria / T: 37 15 45 / Faxa: 36 54 95

Egortza soziaia, Publizitatea eta Administrazioa: ANSO faktimo, I.e.1./20010 Donostia / T: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-Lerka, 01005 Gasteiz / T: 23 38 72 / Faxa: 23 38 72

Nafarroak: Iratxe Monasterio, 45.13.eko, (Iruñeko dorrea) / 31011 Iruñea / T: 37 80 7879 / Faxa: 37 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2.1.eko, (48003) Bilbo / T: 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Behereak / Zuberoak: Paimpou 14.1/505 Puda / Iruñea, 764100 Baiona / T: 59 50 35 25 / Faxa: 50 25 11